



EBAZPENA, 2022KO ABUZTUAREN 31EKO, HEZKUNTZA SAILEKO LANBIDE HEZIKETAKO SAILBURUORDETZAREN TEKNOLOGIAREN ETA IKASKUNTZA AURRERATUEN ZUZENDARIARENA, PRESTAKUNTZA-ZIKLOAK EMATEN DITUZTEN IKASTETXE PUBLIKOETAN 2022-2023 IKASTURTEAN ATZERRIKO HIZKUNTZA INDARTZEKO PROGRAMAREN DEIALDIA ARAUTZEN DUENA.

Hezkuntza Saila ekimen multzo bat bultzatzen dabil derrigorrezko hezkuntzan eta derrigorrezkoaren ondoko hezkuntzan, Euskal Autonomia Erkidegoko ikasleek atzerriko hizkuntzetan duten gaitasuna hobetu dezaten.

Lanbide Heziketari dagokionez, Hezkuntza Sailak Europako programa hauek finantzatzen parte hartzen du: Erasmus +, erdi-mailako eta goi-mailako lanbide-heziketako praktikak egiteko; programa horien bidez, ikasleei aukera ematen zaie praktiken bidezko prestakuntza jasotzeko Europar Batasuneko herrialdeetan. Horretaz gainera, heziketa-moduluak atzerriko hizkuntzetan egitea ere eskaintzen du.

Bestalde, Lanbide Heziketako V. Euskal Planak eleaniztasunaren aldeko apustu garbia egiten du, aurretik Lanbide Heziketako Euskal Sistemaren nazioartekotze-estrategiaren ondorioz, eta V. Planak indartu egiten du. Era berean, Euskal Autonomia Erkidegoko Lanbide Heziketari buruzko ekainaren 28ko 4/2018 Legearen 28. artikulua prestakuntza-prozesuetako eleaniztasunari heltzen dio.

Hizkuntzak giltzarri dira ikasleen enplegarritasuna eta mugigarritasuna hobetzeko, enpresek merkatu global batean jardutea eskatzen dutenez gero. Horregatik, Europako Batzordeak hizkuntzak jakitearen garrantzia eta hizkuntzei arreta berezia eman beharra azpimarratzen du; izan ere, hizkuntzak mintzatzeko gaitasuna ezinbestekoa da lehiakorrak izateko.

Ebazpen honen bidez, hizkuntza indartzeko programaren deialdia arautzen da. Programa hori prestakuntza-zikloak ematen dituzten ikastetxe publikoetan egingo da 2022-2023 ikasturtean.

Hori dela eta, honako hau

EBAZTEN DUT:

1. artikulua.- Hartzaileak

Edozein prestakuntza-ziklotako ikastetxe publikoetako ikasleek parte har dezakete atzerriko hizkuntza indartzeko programan.

2. artikulua.- Irakaste-aldia

Atzerriko hizkuntza indartzeko programa 2022/2023 ikasturtean emango da.

3. artikulua.- Emateko modalitateak

Honako hauek izan daitezke programa emateko modalitateak:

- Presentziala



- Ez presentziala (on line)
- Mistoa (kurtsoaren iraupenaren %20a gutxienez presentziala)

4. artikulua.- Irakastorduak

Atzerriko hizkuntza indartzeko ikastaroak (3. artikuluko hiru modalitatetan) gutxienez 60 ordukoak izan behar dira eta gehienez 100 ordukoak —ikastetxe bakoitzak irizten dionaren arabera—, eta eskola-ordutegitik kanpo eman behar dira, astean bi ordu gutxienez, eta zortzi ordu, gehienez.

5. artikulua.- Ikuspuntu didaktikoa

Ikastaro horietan, ingeles praktikoa landuko da, alde batetik, lanbide-heziketako tituludunen lan-egoeren eguneroko erabilerei lotuta, eta, bestetik, ikasleek ikasten duten lanbide-arloei lotutako erabilera teknikoei lotuta, batez ere ahozko trebetasunen komunikazio-gaitasunari lotuta. Horretarako, elkarrizketa-praktika eta ahozko banakako eta taldeko azalpenak sustatuko dira, eta eguneroko lanean multimedia-baliabideen erabilera txertatuko da. Eskola-jarduera horiek eskolaz kanpoko beste jarduera batzuekin osatu ahal izango dira, hizkuntzaren erabilera sustatzeko.

6. artikulua.- Izen-ematea eta bertaratzea

1. Ikasleek borondatez eta doan eman ahal izango dute izena atzerriko hizkuntzako ikastaroan, baldin eta maila homogeneousko taldeen prestakuntzan ikastetxeak ezarritako baldintzak betetzen badituzte.

Bertaratzea nahitaezkoa da hiru modalitatetan, presentziala, ez presentziala (on line) eta mistoan. Ikastetxeetako zuzendaritzek ikasleen konpromisoa eta motibazioa sustatzea bilatuko dute, egokitzat jotzen dituzten metodo pedagogikoen bidez.

2. Konpromisoren erakusgarrian, izena ematerakoan, ikasleak 60 euroko fidantza bat jarri beharko du. Fidantza ikasturtea bukatutakoan itzuliko zaio baldintza hauen arabera: modalitate presentzian, gutxienez eskolen % 80ra joan bada, edo ez presentzian (on line) ikasturteko helburuen % 80a behar bezala bete baditu.

Horri dagokionez, ikasleek honako eranskin hauek beteko dituzte:

- Adin txikikoek: III-A eranskina.
- Nagusikoek: III-B eranskina.

3. Fidantzaren kontzeptuan jasotako diru-sarrerak ikastetxearen gastu-kontuan sartuko dira aurrekontuz kanpoko diru-sarrera gisa, eta jarduera amaitzean, Eusko Jaurlaritzaren Diruzaintza Nagusian sartuko da ikasleei itzuli ez zaien fidantzen saldoa. Ikastetxeak III-C eranskina beteko du.

Justifikazio-aldian, ikastetxeak VI. eranskinean (partaidetza-akta eta emaitzak) adieraziko du fidantzen azken egoera (itzulketa, bai edo ez), jasotako diru-zuzkiduraren justifikazioa aurkeztean.

4. Horrela kontrolatuko da bertaratzea:

- Ordu presentzialak: sinadura-orrien bidez (IV.eranskina) gauzatuko da.
- Ez presentzialak (on line): honako hiru ebidentzia mota hauek aldi berean jaso beharko dira:



- Formakuntza saio bakoitzaren pantaila-irudia, partaideen bertaratzea islatuz.
- Irakaslearen adierazpena urrutiko saioen (on line) planifikazioa jasoz eta partaide bakoitzaren saio guztien bertaratzea adieraziz (bai ala ez). (Ordu sinkronoak V. eranskinean). (Ordu asinkronoak V.bis eranskinean).
- Erabilitako plataformak aukera ematen badu, plataformara konexio-erregistroak, partaideen identifikazioa, datak eta konexio denborak adieraziz.

7. artikulua.- Gainbegiratzea

Ikastetxeko zuzendaritzari dagokio ebazpen honen 3., 4., 5. eta 6. artikuluetan jarritako betekizunak betetzen diren gainbegiratzea.

8. artikulua.- Taldeak antolatzea

Modalitate presentzian, hizkuntza bakoitzeko taldean gutxienez 8 ikasle egongo dira, eta gehienez 20. Ez presentzian (on line) berriz, ez da gutxienerako edo gehieneko ikasle-kopururik ezarriko.

Taldeak osatzeko, HEEEB Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuan hizkuntzentzat ezarritako mailak hartuko dira erreferentziazat: A2, B1.1, B1.2 eta B2. Modalitate presentzian eta maila beran ikastetxe batek ikasle interesatuen kopurua 20 baino gehiagokoa denean, maila horretan bi talde osatzeko aukera izango du.

Modalitate presentzian baimendutako talde bakoitza atzerriko hizkuntza-irakasle baten ardurapean geratuko da. Hala ere, puntualki beste kolaboratzaileen esku-hartzea posible izango da.

Izena eman arren, modalitate presentzian talderik osatzea lortu ez duten ikasleei itzuli egingo zaie ebazpen honen 6. artikuluan aipatzen den fidantza.

9. artikulua.- Hizkuntza-eskolak ematea, finantzatzea eta ebaluatzea

1. Arlo honetan esperientzia egiaztatua duen kanpoko enpresa batek emango ditu eskolak. Aurrez aurreko modalitatean jarduera ikastetxean bertan egingo da.

2. Modalitate presentzian, ikastetxeak gehienez ere 50 euro jasoko ditu, emandako eskola-orduko eta osatzen den talde bakoitzeko. Modalitate ez presentzian (on line) baimendutako talde bakoitzeko, berriz, 4 euro eskola-orduko eta ikasle bakoitzeko emango dira. Modalitate mistoan (kurtsoaren iraupenaren %20a gutxienez modalitate presentzian izan behar da), 5 euro eskola-orduko eta ikasle bakoitzeko izango ditu ikastetxeak.

Nolanahi ere, guztira eman beharreko zenbatekoak gainditu egiten badu aurrekontu-hornidura, erakunde onuradun bakoitzari emango zaion zenbatekoa proportzioan egokituko da, baimendutako talde eta ikasleen arabera, harik eta laguntza guztiak moldatu arte aurrekontu-hornidurara.

Aurrez aurreko taldeak esleitzeko eta baimentzeko orduan, kontuan hartuko da zer bertaratze-maila izan duten ikasleek aurreko ikasturteetan. Orobat hartuko da aintzat zenbat ikasleek ez duten osatu eskolen %80a, horregatik baimenak murriztu ahal izango baitira.



3. Ikasturte-hasieran, ikasleei hasierako azterketa bat egingo zaie, matrikulatu diren mailaren arabera. Ikastaroa amaitu ondoren, ikasleek azken mailako azterketa bat egingo dute, eta emaitzak ikastetxe publikoei zuzendutako "herri-ikastetxeak/Deialdiak" atariaren bidez bidaliko dira. Emaitza hauek justifikazioarekin batera aurkeztuko dira, VI. eranskinaren arabera, programako ikasleen parte-hartzeari buruzko informazioa, fidantzen egoera (itzultzerarekin edo itzultzerik gabe) eta hasierako eta bukaerako azterketetan izandako emaitzak adieraziz.

4. Teknologiaren eta Ikasketa Aurreratuen Zuzendaritzak prestatutako gogobetetasun-inkesta ikasleek egingo dute.

5. Kurtsoa behar bezala bukatuko duen ikasle bakoitzari, formakuntza emango duen enpresak aprobetxamendu- ziurtagiria luzatuko dio.

10. artikulua. – Kontratazio-organoa eta enpresari ordaintzea

1. Ikastetxe bakoitzeko zuzendaritzari dagokio atzerriko hizkuntza indartzeko ikastaroak emateaz arduratuko diren enpresak kontratatzea.

2. Modalitate presentzialean kontratatutako enpresen ordainketak hileroko egingo dira, ikastetxearen kontuaren kargura. Hori egiteko, enpresak aurrekontua eta faktura aurkeztu beharko ditu, behar bezala beteta, pertsonala-gastuen gisa, hilabete bakoitzean zenbat eskola-ordu eman dituen edo kurtsoko ikaslearen erabilierarentzako hartutako erreminta edo informatika-lizentziak adieraziz.

Modalitate ez presentzialean (on line), ordainketak ez dira izan beharko hilabetero eta gauzatu ahalko dira bi ordainketetan (hasierakoa eta bukaerakoa) ikastetxearen kontuaren kargura. Hori egiteko, enpresak aurrekontua eta faktura aurkeztu beharko ditu, behar bezala beteta, pertsonala-gastuen gisa, hilabete bakoitzean zenbat eskola-ordu eman dituen edo kurtsoko ikaslearen erabilierarentzako hartutako erreminta edo informatika-lizentziak adieraziz.

3. Kontratutako enpresak emandako saio bakoitzeko ikasleen sinadura-aktak aurkeztu beharko dizkio ikastetxeari (V. eranskinaren arabera - modalitate presentziala – edo V, V bis eranskinaren arabera – modalitate ez presentziala -, 6.4 artikulua ikusi), ikasleen bertaratzearen berri izateko. Akta horiek ikastetxean gordeko dira, egon daitezkeen egiaztapenak egiteko.

11. artikulua. -Izapidetze elektronikoa

Interesatuta dauden ikastetxeek bide elektronikoak erabiliz eskatuko, kontsultatuko eta egingo dituzte prozedura honetako izapide guztiak, ikastetxe publikoentzat jarritako "Herri-ikastetxeak / Deialdiak" atariaren bitartez.

Atari horretan, deialdi honen fitxa eta deialdiarekin lotutako berriak argitaratuko dira. Fitxa horretan, eskatzaileen eskura egongo dira prozesuan parte hartzea eskatzeko jarraibideak eta erabilera-gidaliburuak, baita horren jarraipena ere.

12. artikulua.- Eskabideak aurkeztea

1. Ikastetxe eskatzaileek agiri hauek aurkeztu beharko dituzte, behar bezala beteta, ebazpen honen eranskinak soilik erabiliz.. Aurreko deialdietako eranskinak eta/edo eskaneatutako eranskinak erabiltzen dituen dokumentazioa baztertu egingo da.



2. Eskabideak ikastetxe publikoentzat jarritako “Herri-ikastetxeak / Deialdiak” atariaren bitartez aurkeztuko dira.

Ikastetxe eskatzaileek 2022eko irailaren 30a arte eskaera aurkezteko aukera izango dute, honako eranskin hauek betez:

- I. eranskina: Ikastetxeko hizkuntza indartzeko formakuntza ekintza guztiak jasotzen dituen hizkuntza indartzeko eskaera.
- II. eranskina: Formakuntza ekintzaren fitxa. Programa honetan parte hartuko duen ikastetxeko talde bakoitzari dagokion fitxa beteko da.

Halaber, prozedura osoan zehar, erakunde eskatzaileak hautatutako hizkuntza erabiliko da, Euskararen Erabilera Normalizatzeari buruzko azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legearen 5.2.a eta 6.1 artikuluetan ezartzen den moduan.

3. Ikastetxeak gordeko ditu familien baimenak eta adin nagusiko ikasleek egindako eskabideak (III-A eta III-B eranskinak betez egindakoak).

Aipatutako dokumentu-ereduak ikastetxe publikoentzat jarritako “Herri-ikastetxeak / Deialdiak” atariaren bidez jaitsi daitezke, PDF betegarrian.

13. artikulua.- Ikastaroak baimentzeari buruzko jakinarazpenak

Ebazpena ikastetxe publikoentzat jarritako “Herri-ikastetxeak/Deialdiak” atariaren bitartez jakinaraziko zaie parte hartzen duten ikastetxeei.

Ikastetxeei 2022eko urriaren 31a baino lehen jakinaraziko zaie zenbat ikastaro baimendu diren.

14.artikulua.- Ikastetxeen betebeharrak

1. Esleituak izan diren ikastetxeak, egiaztapen eta kontrol funtzioak bete ahal izan ditzaten, zortzi urtez gutxienez ondorengo egiaztagiriak artxibatuko ditu:

- bertaratzeari buruzko dokumentuak (IV,V edo V bis. eranskina)
- fidantzeei buruzko dokumentuak (III-A edo III-B eta III-C eranskinak)
- emaitzei buruzko dokumentua (VI. eranskina)
- gastuei buruzko dokumentua (VII. eranskina) eta ordainketen egiaztagiriak.

2. Beharrezkoak izango diren erabaki egokiak hartzeko, 16.artikulan agertzen den moduan, hasieran baimendutako onura ekonomikoaren baldintzak jasotzen dituen, saio bakoitza bukatzerakoan metatutako bertaratzearen balantze partziala egingo da.

3. Ikaslegoaren bertaratzearen kontrola, 6.artikulan aipatzen diren dokumentuak erabiliz (IV, V edo V bis eranskina) egingo da. Geroan beharrezkoak izango diren egiaztapenak egiteko aukera izateko, dokumentu hauek ikastetxean bertan zainduko dira.

4. Modalitate presentzialean, edozein saiotan kurtsoko orduen % 80ko gutxieneko bertaratzea gainditu ahal duten ikasleen kopurua 3 edo gutxiagokoa bada, ikastetxeko zuzendariak kurtsoa bertan behera utziko du eta falta diren ikastorduek ez dira emango. Era berean, ikastetxeko zuzendariak Teknologiaren eta Ikasketa Aurreratuen Zuzendaritzari berri emango dio, hui1038@euskadi.eus posta elektronikoen bidez.

5. Dirulaguntza eman zeneko talde bakoitzeko irakastorduen kopuru eta banaketa



errespetatuz, ikastaro osoa garatu behar da.

6. Emandako onuraren aldaketa edo itzultzea eskatzea, baldintzak betetzen ez direnaren kasuan.

7. Onura ekonomikoa eman zeneko edozein baldintzetako aldaketaren berri Hezkuntza Saileko Teknologiaren eta Ikaskuntza Aurreratuen Zuzendaritzari emateko konpromezua.

15.artikulua – Dirulaguntzaren aldaketa

Hasieran emandako onura ekonomikoa honako kasu hauetan aldatuko da:

1. Saio bakoitza bukatzerakoan metatutako bertaratzearen balantze partziala egingo da:

1.a Modalitate presentzian:

- Ikastorduen % 80ko gutxieneko bertaratzea gainditu duten ikasleen kopurua talde bakoitzeko 6 ikasle baino gutxiagokoa eta 3 ikasle baino gehiagokoa bada, dirulaguntzaren zenbatekoa hainbanatuko da, bertaratze-ehunekoa aplikatuz.
- Edozein saiotan kurtsoko orduen % 80ko gutxieneko bertaratzea gainditu ahal duten ikasleen kopurua 3 edo gutxiagokoa bada, berehala ikastetxeko zuzendariak bertan behera utziko ditu falta diren ikastorduak. Kasu honetan, gehienez, ordura arte emandako orduak ordainduko dira.

Aurreko bi kasuetan, Teknologiaren eta Ikaskuntza Aurreratuen Zuzendaritzari berri emango zaio, huisl038@euskadi.eus posta elektronikoaren bidez.

1.b Modalitate ez presentzian (on line) edo mistoan:

Ikasleren batek ezin izango badu %80ko asistentzia minimoa bete, soilik emango da ikasle horietarako memento horretara arte emandako orduen kostua.

2. Irakastorduak ez badira hasieran onartutakoak adina, dirulaguntzaren zenbatekoa proportzionalki gutxitu egingo da eman diren irakastorduen arabera.

Edozein aurreko kasutan (1a, 1b, 2) hasieran onartutako dirulaguntza aldatu egingo da eta zentro publikoei zuzendutako “Herri-Ikastetxeak / Deialdiak” atariaren bitartez ikastetxeei jakinaraziko zaie. Ondoren, hurrengo egunetik aurrera hamabost egun naturaleko epea ezarriko da alegazioak egiteko eta bidezko irudituko zaizkien dokumentuak edota justifikazioak aurkezteko. Alegazioentzako epea behin bukatuta, onuradun entitateak soberan izandako diru kopuruak itzultzera behartuta egongo dira.

16. artikulua – Prozedura ebaztea

1. Teknologiaren eta Ikaskuntza Aurreratuen Zuzendariak emango du deialdi honetan aurreikusitako zuzkidurak emateko ebazpena.

Ebazpen hori, berriz, parte hartzen duten ikastetxeei jakinaraziko zaie, ikastetxe publikoei zuzendutako “Herri-ikastetxeak / Deialdiak” atariaren bidez (<https://educacion.hezkuntza.net/group/deialdiak/>).

2. Ebazteko gehieneko epea bi hilabetekoa da, eskabideak aurkezteko epea amaitu eta hurrengo egunetik aurrera.



3. Epea amaitu eta ikastetxe interesdunari ebazpenik jakinarazi ez bazaio, eskabidea ezetsi egin dela ulertuko da.

17. artikulua – Programa egin izanaren justifikazioa

Atzerriko hizkuntza indartzeko programa amaitzean, eta beti ekainaren 30a baino lehen, ikastetxe onuradunek programa egin izana justifikatuko dute, eta, horretarako, "Herri-ikastetxeak/Deialdiak" atariaren bidez, enpresa emaileari ordaindutako fakturen kopiak aurkeztuko dituzte, ondoko eranskin hauekin batera, behar bezala beteta:

- IV eranskina, bertaratze presentziala kontrolatzeko orria.
- V eta/ edo V bis eranskinak, ordu sinkorno-asinkronoen erantzukizunpeko adierazpena.
- VI. eranskina, ikaslegoaren programan parte-hartzearen laburpena, fidantzen itzultzearen azken egoera eta ikasleen hasierako eta amaierako proben emaitzak.
- VII. eranskina, informazio ekonomikoari buruzkoa.
- Ikaslegoaren asetze-inkesta.*Hauek barneko inkestak direnez, ez dira aurkeztu behar.
- Ikastetxearen balorazioa.

Vitoria-Gasteiz, 2022ko abuztuaren 31

Rikardo Lamadrid Intxaurreaga

Teknologiaren eta Ikaskuntza Aurreratuen zuzendaria